

HIRIGINTZA FITXA.- 8 SO. DEBAKO HILERRIA. DEBA ALDEA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

1.1. HIRI EGITURA.

Debako hiri alderdiko hilerria.

9 SO. "Itziarko hilerria" esparruaren aldamenen eratu da, lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementu gisa.

1.2. ESPARRUAREN AZALERA. 11.603 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunitatearen ekipamenduko zona: zerbitzu publikoak (11. artikulua: G.8).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Hilerri osoak unitate morfologiko bat osatzen du eta, beraz, alderdi bakar bat.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Herrigunearen erdi-erdian dagoen Amillagako hilerri zaharraren lekualdaketa ahalbidetzea, horrela araudi sektorialak bete ahal izateko, hala nola Hileta Araudia eta Irisgarritasun Legea.

Hilerria lurraldean eta udal antolamenduan mugarri gisa hartzea.

Eremua hilerri irekiaren irizpidez egokitzea, "lorategi" edo "parke" moduan.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Orientabide gisa:

Bideak eta aparkalekuak.....	451 m ²
Eraikuntza epeduna.....	1.460 m ²
Lur emateko lorategia.....	3.731 m ²
Berdegunea	4.600 m ²
Oinezkoentzako sarbidea eta ibilbideak.....	352 m ²
Askotariko trafikoen sarbidea	378 m ² .

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Hileta Legeriari buruzkoak eta urriaren 19ko 202/2004 Dekretua eta haren Eranskina (EHAA, 2004ko azaroak 18).

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ekipamendua.

Eraikuntza. Berrira: proiektu arkitektonikoaren premien arabera.

Jabaria. Publikoa.

Erabilera. Hileta Legeriaren eta urriaren 19ko 202/2004 Dekretuaren eta haren Eranskinaren (EHAA, 2004ko azaroak 18) arabera.

3.4. EKIPAMENDU, HIRITARTZE ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen arabera.

Handitze lanik eginez gero, desjabetze sistema baliatuko da beharrezko diren lurrak eskuratzeko. Handitze lanak egiteko aldameneko zonak hartzean, ez da beharrezkoa izango ez planeamendua aldatzerik ez lurzorua birsailkatzerik.

Antolatutako esparruaren barruan ubiderik ez dagoen arren, proiektu teknikoak eta obren garapenak lurzoruaren irazgaiztasuna eta lixibiatuen kontrola bermatuko dituzte, honako irizpide hauei jarraiki:

- Lurzoruaren irazgaiztasuna:
- Eragin kaltegarriak ekidite aldera, proiektuak lurzorian iragazteak eragotziko dituen hesi irazgaitz bat sortzea proposatuko du, lurzoruaren eta lurpeko uren babes bermatze aldera.
- Hesi irazgaitz horrek Eusko Jaurlaritzak hondakin inerte eta inertizatueterako ezarritako betekizunak (Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen sailaren 423/1994 Dekretua, eta hura garatzen duen sail bereko buruaren Agindua, 1995eko otsailaren 15ekoa) konplitu beharko ditu. Araudiak adierazten duenez, 10^{-5} m/s eta 10^{-7} m/s bitarteko irazkortasun balioetarako beharrezkoa izango da lurra irazgaiztu edo egokitzea, haren irazkortasuna 10^{-7} m/s-tik behera murrizteko.
- Era berean, 1996ko otsailean Europar Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratutako europar araudiak ezarri zituen betekizunak konplitu beharko ditu. Aipatu araudian, halaber, hondakin inerteen zabortegetarako K irazkortasun koefizientea 10^{-7} m/s-koa edo hortik azpikoa izatea exijitzen da, metro bateko lodieran.

Horrez gain, obrak gauzatzeko proiektu teknikoak lixibiatuen kontrola aurreikusi beharko du dekantatze putzu fitrobiologiko batetik, aldian-aldian kontrolpeko zabortegei baterako harreraz.